006 ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

I. XEDAPEN OROKORRA

1.artikulua

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta bere barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau Hernaniko udalerri osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.

Tasak zergak dira eta duten zergagaia da udalaren herri jabariaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia, bai eta subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten eta udalaren eskumenekoak diren zerbitzu publikoak emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik.

Nolanahi ere, tasatzat hartuko dira ondoko hauengatik Hernaniko Udalak finkatzen dituen ondarezko prestazioak:

A) Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia, eta, halaber, erabilera publikoari atxikitako beste ondasun batzuena.

B) Subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten udalaren eskumenekoak diren eta zuzenbide publikoko erregimenean dauden zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea; eta beti ere ondorengo zirkunstantzietako edozein gertatzen denean:

a) Zerbitzu edo jarduerak administratuek borondatez eskatzekoak edo hartzekoak ez izatea. Ondorio horietarako, ondoko kasuetan ez da borondatezkotzat joko administratuek eskatzea edo hartzea: Lege edo erregelameduzko xedapenetan ezarria denean. Administrazioari eskatutako ondasun, zerbitzu edo jarduerak ezinbestekoak direnean eskatzailearen bizitza pribatu edo sozialean.

b) Sektore pribatuak ez ematea edo egitea, indarrean dagoen araudiari jarraiki sektore publikoaren alde erreserbatuta egon edo ez.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

1. Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3 apartatuan aipatutako entitateak, baldin eta:

a) Udalerriaren herri jabaria bereziki gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute beren onurarako, Zergen Foru Arau Orokorrak 20.2 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.

b) Udalerriek eman edo egiten dituzten udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte edo haiek onura ekarri edo eragiten badiete, Zergen Foru Arau Orokorrak 20.3 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.

2. Zergadunaren ordezkoak hauexek izango dira:

a) Etxebizitza edo lokalen egoiliar edo erabiltzaileei onura dakarkien edo eragiten dieten zerbitzu edo jarduerengatik finkatutako tasetan: Ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik finkatutako tasetan: Obren eraikitzaileak edo kontratistak.

c) Suhiltzaile zerbitzuak, aurrien prebentziokoak, eraikuntza eta eraispenekoak, salbamendukoak eta, oro har, pertsona eta ondasunen babes zerbitzuak emateagatik finkatutako tasetan (zerbitzuaren mantenimendua barne): Arriskuaren aseguratzaileak diren entitate edo sozietateak.

d) Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia dela-eta ibilgailuak edo gurdiak espaloietan sartu edo haiek egin, mantendu, aldatu edo kentzeagatik finkatutako tasetan: Ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

5. artikulua.

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) Partikularrek eskatuta egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) Partikularrek eskatu ez arren, horien ekintzak edo ekintza-ezak eragindako zerbitzu edo jardueren kasuan, ekintzaren edo ekintza-ezaren arduraduntzat jotzen direnak.

6. artikulua.

Ordenantza honetan adierazten diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonek ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK

7. Artikulua.

Indargabetu

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua.

Oinarri ezargarri zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua.

Zerga kuota honelakoa izango da, eranskinean xedatutakoaren arabera:

a) Tarifa bat jarriz ateratzen den kopurua.

b) Horretarako jarritako kopuru finkoa.

c) Bi prozedurak batera erabiliz ateratzen den kopurua.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.

1.- Tasak kasu hauetan sortu ahal izango dira beren zergagaiaren izaeraren arabera eta ordenantza fiskalean jasotakoari jarraiki:

a) Zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean, nahiz eta bi kasuotan zenbatekoa osorik edo zati batean aurrez gordailatzea exiji daitekeen.

b) Jarduketa edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean. Hura egin edo tramitatu aurretik behar den kopurua ordainduko da.

2.Tasaren izaera materialak aldizkako sortzapena exijitzen duenean, eta ordenantza fiskalak hala jasotzen duenean, sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, salbu zerbitzu edo jardueraren erabilera hasi edo amaitzen bada. Azken kasu horretan zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da kuota hainbanatuz, ordenantza fiskalean jasotakoaren arabera.

3. Subjektu pasiboari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa, jarduera administratiboa eman edo egiten ez denean, zenbatekoa itzuli beharko zaio.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.

Hernaniko Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da eranskinak exakzio bakoitzeko ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskinak, bertan adierazten den egunean onartu ziren behin betikoz, 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

006.01.-ERANSKINA I

01. AUTO-TAXI ETA GAINERAKO AKURA-IBILGAILUEN LIZENTZIA ETA BAIMEN ADMINISTRATIBOAK EMATEA

	€
Auto-taxietarako lehen lizentzia	562,45
Auto-turismoen lehen lizentziak	562,45
Abonu eta zerbitzu berezi eta abonuetarako lehen lizentziak	562,45
Eman diren eta indarrean dirauten lizentzien transmisioak plaza kopurua bereizi gabe	4.518,35
Emandako lizentzia duten ibilgailuen ordezkapena	45,15
Ibilgailuen urteroko berrikustapenak	22,55
Gidari baimenak luzatzea	22,55

TASA KUDEATZEKO ARAUAK

1.-Auto-taxitzat honako hau ulertzen da: gidariarekin alokatzen den ibilgailu arina, taximetro bidez neurtzen den zerbitzua ematen duena, normalean herri barruan.
2.-Auto-turismotzat honako hau ulertzen da: gidariarekin alokatzen den ibilgailu arina, taximetrorik gabekoa eta zerbitzua herri barruan nahiz herritik kanpo ematen duena.
3.-Zerbitzu berezietako eta ordainketako ibilgailuak honako hauek dira: luxu eta potentzia ezaugarri jakin batzuk dituztenak edo ezagupen bereziak dituzten gidariek gidatzen dituztenak, zeremonietarako, jarraian erabiltzeko ordainketa-erregimenean, edo bestelako zerbitzu berezietan.
4.- Tasa honetatik libre gelditzen dira gidaririk gabe alokatzen diren ibilgailuak eta udalaren erabakiz egin beharreko ibilgailuen errebisioak, urteroko ezinbesteko errebisioak kenduta.
5.- Tasa auto-kitapen erregimenean kudeatuko da; eta horren ordainketa, Udalak baimena eman aurretik, justifikatu beharko da.

006.02.-ERANSKINA II -HIRIGINTZAKO LIZENTZIAKEMATEA

01. OBRAK EGITEKOLITZENTZIAK

Obra-baimen eskaerarekin, erantzukizunpeko aitorpenarekin edo aurre jakinarazpenarekin batera aurkezten den aurrekontuaren arabera	
	€
6.000€ arte	0
6001€ eta 12.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	79,85
12.001 € eta 30.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	292,70
30.001 € eta 100.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	804,65
100.001 € 500.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentzia	1.739,45
500.001 €-tik gorako aurrekontua duten obretarako lizentziak	3.476,60

02. LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIAK

	€
Etxebizitza bakoitzeko	83,05
Merkataritza lokalak: eraikitako m2 bakoitzeko	1,45
Hirugarren sektoreko erabilerako lokalak: eraikitako m2 bakoitzeko	0,88
Garaje plaza bakoitzeko	16,65

500 m2 edo gutxiagoko azalera duten industria bakoitzeko	418,30
500 m2-tik gorako azalera duten industria bakoitzeko	836,60
Lerrokadurak, fatxadako metro lineal bakoitzeko	9,55
	%
Aurreko lizentziak luzatzea edo eskualdatzea, kuota likidoaren kopuruaren ehunekoaren arabera	30,00
	€
Lurzatiketa/banatzea	249,40
Merkataritzarako lokala etxebizitza izatera aldatzeagatik edo alderantziz eskuratu beharreko lizentzia	249,40
Lur mugimenduak egiteko lizentzia	546,15

03. HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEA. SALBUESPENAK

1. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango udalerriko etxeetan gas sareari lotzeko egiten diren lanetarako baimenek, salbu eta berritik eraikitzen diren etxeetan egiten direnek.	
2. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango Mankomunitateak eta Udalerri-Taldeak jabe diren edozein eraikuntzak, instalazioak eta obrak egiteak, betiere entitate horietan Hernaniko Udala barruan egonez gero.	
3. Ez dute tasa ordaindu beharrik izango Eusko Jaurlaritzak Herri ikastetxeetan egin beharreko obrek, betiere obra bukatu ondoren Udalari eraikinaren mantentze-lanak egitea badagokio.	
4. Bereziki hartuko dira kontuan eta, hortaz, zerga ordaintzetik salbuetsita gera daitezke ezbehar batek eragindako eraikuntzen birgaikuntza edo berreraikuntza lanak, subjektu pasiboak aldez aurretik eskakizuna behar bezala justifikaturik aurkezten badu eta Ogasun eta Ondarea – Kontuetarako Batzorde Bereziko Batzordeak aldeko irizpena ematen badu.	

04. HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEA. HOBARIAK

	%
1. Babes ofizialeko etxeak eraikitzeko obra baimenek.	90
2. Jabekideen elkarteek egindako diruz lagundutako obrak, betiere obra horiek egiten badira jabari publikotik jendea bizi den eraikinetara joateko traba arkitektonikoak kentzeko, igogailu baten bidez, edota gurpil-aulkia beharrezkoa dutenentzat jasotzaile baten bidez.	90
3. Interes bereziko obrek edo udal onurakoak izendatuta daudenean arrazoi sozial, kultural edo historiko-artistikoengatik edo enplegua	90

sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.	
4. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Bizigune programaren barruan burututako obrak. Interesatuek eskatu beharko dute hobaria, behar bezala adierazita eta egiaztatuta etxebizitza Bizigune programan sartuko dela (Alokabiderekin aurkeztutako eskaera kontrastatuko da).	50

TASA KUDEATZEKO ARAUAK

1. Baimen bat lortu nahi duten pertsonek eskaera aurkeztu beharko dute eta eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu: egin nahi diren lanen edo instalazioen izaera, zabalera eta nondik norakoak, lana non egitekoa den, lanaren kostu errealaren aurrekontuaren bi ale, lanen arduradunak nahiz teknikari gaituak izenpetua eta, oro har, exakzioa zehazki aplikatzeko jakingarria den informazio guztia.
2. Eskabidea interesatuak berak nahiz lanen kontratistak egin ahal izango du, baina honako datu hauek agertu beharko dira: higiezinaren jabearen izena eta helbidea, maizter edo errentariarena, lanak berak ordainduta eta berak nahi duelako egiten badira, eta etxeko jabea lanak egitearekin ados dagoela eta lanak egiteko baimena ematen duela adierazten duela.
3. Planta berriko lanak egiteko eskabideak, dauden eraikinen zaharberritze-lanak egiteko eskabideak eta, oro har, udal honetako hirigintza-arau aplikagarrietan hala egin dadila ezartzen den lanetarako eskabideak, lanen egileak eta lanen teknikari zuzendariak izenpetu beharko dituzte. Eta eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira: planoak, proiektuak, memoriak eta aurrekontuak, lanen edo instalazioen teknikari zuzendariaren kolegio ofizialak bisatuak, eta ale kopurua, Eraikuntza-Ordenantzan ezarritako formaltasunekin.
4. Planta berriko eraikuntzak egiteko baimen eskaeran honako hau agertu beharko da: orubea erabat libre dagoela eta ez dagoela eraikitzeko trabarik egiten duen inolako eraikinik. Hala ez bada, dagoen eraikina botatzeko baimena eskatu beharko da aldez aurretik edo aldi berean.
5. Era berean, planta berriko eraikinak egiteko baimena eskatu aurretik, lerrokadura eta sestren mugapenerako baimena eskatu beharko da, Plangintza Orokorreko hirigintza arauetan ezarritako moduan.
6. Baimen eskaera egin ondoren proiektua aldatu edo handitu egiten bada, horren berri eman beharko zaio udalari, eta aurrekontu berria edo aldatua, eta, hala badagokio, aldaketaren edo handitze-lanen planoak eta memoria bidali beharko zaizkio.
7. Udalak, bere teknikari eta agenteen bidez, lanak zaindu, fiskalizatu eta ikuskatu egingo ditu.
8. Tasa autokitapen erregimenean kudeatuko da; eta horren ordainketa, Udalak baimena eman aurretik, justifikatu beharko da.

006.03.-ERANSKINA III

01. HIRIGINTZA GAIETAN LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA ESPEDIENTEAK LUZATU ETA EMATEA

	€
Hirigintza kuotak kobratzea	2.347,55
Konpentsazio Batzordearen aldeko desjabetze espedientea	2.135,95
Udalari urbanizazioa lagatzea	6.943,85
Aurri espedientea	1.793,70
Planeamenduko elementuen aldaketa: Ogasun eta Ondare batzordeak kasu bakoitza aztertuko du, administrazio kostuaren balorazioaren txostena egin ondoren.	

TASA KUDEATZEKO ARAUAK

1. Tarifan jasotako jardueraren batengatik udalak egindako ekintzak dira zergagaia.

2. Tarifan sartzen den kontzeptu bakoitza zer den ongi zehazteko eta interesatuek egin beharreko tramiteak zein diren zehazteko, indarrean dagoen araudian ezarritakoa hartuko da kontuan.
3. Tasa autolikidazioa erregimenean kudeatuko da.
4. Argitaratu beharreko iragarkien gastuak interesatuek ordainduko dituzte.
006.04.-ERANSKINA IV ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO ETA INSTALAZIOAK EZARRI EDO ALDATZEKO LIZENTZIAK
Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/21 Legean ezarritako sailkapenetara egokitzen dira.

01. INGURUMEN BAIMEN BATERATUA EDO BAIMEN BAKARRA BEHAR DUTEN JARDUERAK.

A) Jarduera funtzionatzen hasteari edo irekitzeari buruzko jakinarazpena	
	€
1. Instalaciones hasta 1.000 m²	950,15
2. 1.000 m² – 2.000 m² artekoak	1.266,90
3. 2.000 m² – 5.000 m² artekoa	1.689,20
4. 5.000 m² baino instalazio handiagoak	2.322,65
B) Jarduera legeztatzea, handitu edo aldatzea	
	€
Instalazioak legeztatzea, jartzea edo aldatzea (ur biltegiak, haize egokitua, etab.)	712,65
C) Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak	
	%
Jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin badaude(martxan jarri aurreko komunikazioa eta aurkeztu beharreko dokumentu guztiak Udaletxean aurkeztuak badaude) Lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua.	50

02. ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO ETA INSTALAZIOAK EZARRI EDO ALDATZEKO LIZENTZIAK2. JARDUERA SAILKATUARENLIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERAK

A) Jarduera berriaren lizentzia	
	€
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	702,00
2. Nekazaritzako jarduerak	668,20
3. Abeltzaintzako jarduerak	668,20
4. Industria jardueretarako lokalak	918,70
B) Jarduera legeztatzea, handitu edo aldatzea	
	€
Instalazioak legeztatzea, jartzea edo aldatzea (ur biltegiak, haize egokitua, etab.)	702,00
C) Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak	
	%
Jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin badaude(martxan jarri aurreko komunikazioa eta aurkeztu beharreko dokumentu guztiak Udaletxean aurkeztuak	50

badaude) Lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua.	

03. ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO ETA INSTALAZIOAK EZARRI EDO ALDATZEKO LIZENTZIAK 3. JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO JAKINARAZPENA AURKEZTU BEHAR DUTEN JARDUERAK.

A) Jarduera berriaren lizentzia	
	€
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	408,60
2. Nekazaritzako jarduerak	389,40
3. Abeltzaintzako jarduerak	389,40
4. Ostalaritza	702,20
5. Finantza erakundeen lokalak	918,70
6. Industria jardueretarako lokalak	702,00
7. Garaje jardueretarako lokalak (garaje plaza bakoitzeko)	25,50
B) Jarduera legeztatzea, handitu edo aldatzea	
	€
Jarduera legeztatzea, handitu edo aldatzea	389,40
C) Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak	
	%
Jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin ba dauzkate. Lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua	50

TASA KUDEATZEKO ARAUAK

1.- Negoziotarako lokal bat irekitzea honako honi deituko zaio:
a) Lehen establezimenduak irekitzeari.
b) Lokalak lekuz aldatzeari.
c) Lokaletan egiten diren jarduerak aldatu edo handitzeari, nahiz eta titular berak jarraitu.

d) Lokalak eskualdatzeari.
2.- Hau ulertuko da negozioetarako lokal gisa:
a) Bere ohiko jarduera merkataritza duen establezimendua. Eta jarduera bat ohikotzat joko dugu baldin eta Merkataritza Kodearen 3. atalean azaltzen bada edo egiten den jardueraren trafikoaren gai diren egintza edo kontratuak egiteko industri zerga ordaindu behar bada.
b) Establezimendu ireki batean industri jarduera, merkataritza jarduera edo hezkuntza jardueraren bat egiteko den lokala.
c) Bizitzeko egokia izan arren bere erabilera nagusia bizitzekoa ez den eraikina, jendearentzako irekia egon ala ez eta, bereziki, honako lokal hauek:
-Beren kide edo bazkideen aisialdirako-kasino edo zirkuluak.
-Idatzati honen aurreko puntuan adierazitako lokalen esparruen barruan kasinoaren edo zirkuluaren titularra ez den pertsonak merkataritza edo industria ustiapenetarako erabiltzen diren lekuak, dela alokairuan, lagapenean edo bestelako titulupean.
-Industriara nahiz edozein mota edo izaerako negozioetara dedikatzen direnak.
-Jarduera ekonomikoetara dedikatzen direnak.
-Ikuskizun publikoak.
-Gordetegi edo biltegiak.
- Idazmahaia, bulegoa, bulegoa edo estudioa, leku horietan merkataritza edo industria jarduerak egiten badira.

- Idazmahaia, bulegoa, bulegoa edo estudioa, jendearentzat irekia, jarduera artistikoa, lanbidea edo irabazi-asmoko irakaskuntza egiten den tokia.
3.- Indarrean dauden baimenen araberako irekitze baimenik ez duten lokalak eskualdatzeko kasuetan, baimen berria eskatu beharko da eta horri dagozkion tasak ordaindu.

04. ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO ETA INSTALAZIOAK EZARRI EDO ALDATZEKO LIZENTZIAK. Hobariak

	%
Behin-behineko irekiera: Establezimenduak irekitzeko baimenak, baimena behar duen lokalean jardueraren iraupen aldia urtebetetik gorakoa denean, baina hiru urte gainditu gabe.	20
Behin-behineko irekiera: establezimenduak irekitzeko baimenak baimena behar duen lokalean jardueraren iraupen aldia urtebetetik gorakoa ez denean.	50

Kasu hauetan, interesatuak Udalari idatziz jakinarazi beharko dio jardueraren amaiera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren bajaren kopia erantsiko du, jardueraren amaieratik urtebeteko epean. Tasa exekutibo epean ordaindu den kasuetan, hobaria zorraren kopuru nagusiari bakarrik aplikatuko zaio.
006.06.-ERANSKINA VI UDAL HILERRIANZERBITZUAK ETA EMAKIDAK GAUZATZEA

01. EHORZKETA ETA DESHORZKETA ZERBITZUAK ETA HORMA-HILOBIEN EMAKIDA

	€
Ehorzketak hilobietan eta kolunbarioetan	97,90
Ehorzketak panteioetan	130,50
Desehorzketak	108,75

02. EMAKIDAK

	€
Horma-hilobian emakida 10 urte arte	735,25
kolumbarioren emakida 10 urte arte	356,75
Horma-hilobi komunen hileta-eskubidea ematea 10 urte arte	237,15

03. EMAKIDAREN LUZAPENA

	€
Horma-hilobian emakida luzatzea (5 urte) (murrizketarik gabe)	367,65
Kolumbarioren emakida luzatzea 10 urte arte	356,75
Horma-hilobi komunen hileta-eskubidea ematea 10 urte arte	237,15

04. GORPUAREN LEKUALDAKETA

	€
lekualdatzea	163,15
Gorpuzkinetarako kaxa	70,75
Hilarria jartzea	54,40

05. GORPUAREN MURRIZKETAK

	€
Gorpuzkin bat	103,35
2 gorpuzkin	141,40
3tik 10 gorpuzkin arte	179,50
10 gorpuzkin baino gehiago	228,45

TASA KUDEATZEKO ARAUAK

1.- Zergagaia: ematen diren honelako zerbitzuengatik ordaindu beharko dira hemen araututako tasak:
1.-Gorpuak lurperatu eta lurpetik ateratzeagatik.

2.- Gorpuak lekuz aldatu eta txikitzeagatik.

3.- Gorpuak gorputegian uzteagatik.
2.-Noiz sortzen da tasa ordaindu beharra: Zerbitzua ematen denean sortzen da tasa ordaindu beharra. Honelakoetan joko da zerbitzua ematen hasita dagoela:
2.1 Gorpuak lurperatu, lekuz aldatu, txikitu edo gorputegian uzteko zerbitzua jasotzeko eskabidea egitean.
2.2 Hilobia erabiltzeko eskubideak edo obrak egiteko lizentzia ematean.
2.3 Hilerriak kontserbatu eta garbitzeko zerbitzua ematen denean.
3.- Zergapekoa: tasa honako hauek ordaindu behar dute, zergapekoak dira eta: pertsona fisiko eta juridikoek, oinordekotza banatugabeek, ondasunen elkarteek eta, zuzenbide nortasunik izan gabe, unitate ekonomikoa diren edo zergagai den aparteko ondarea duten bestelako entitateek, baldin eta:
3.1 Zerbitzuak nahiz ehorzketa eskubideak edo lizentziak eskatzen badituzte.
3.2 Kapera, kripta eta hilobiak erabiltzeko eskubidearen titular izateagatik, hilerriak kontserbatu, zaindu, garbitu eta apaintzeko zerbitzuetatik nolabaiteko onura ateratzen badute.
4.- Ordaintzeko modua.
4.1 Zerbitzu bakanak :
1.- Ehorztetxeak behartuta daude eskatzen diren zerbitzuei dagozkien eskubideak aldez aurretik ordaintzera, Ordainketa Udal Bilketa Bulegoan egin behar da.
2.-Hilerriko arduradunak zerbitzua emateko baimena ematen duen dekretua eskatuko die ehorztetxeei zerbitzua eman aurretik
4.2. Urteko zerbitzuak:
1.-Tasa ez da hainbanatuko.
2. Emakidaren urtean tasa bere osotasunean ordainduko da, autolikidazioaren bidez, eskatzen diren zerbitzuei dagozkien eskubideak aldez aurretik ordaintzen diren momentuan.
3.Emakidaren amaiera urteak ez du tasarik sortuko.
4.Hilobi-emakidak dirauen bitartean hilerria mantentzeko Zerbitzuaren tasa ordaindu behar da (urte horiei dagokiena). Interesdunak ordainketa hori emakida egiten den unean bertan edo honek dirauen bitartean egin ahal izango du.
5.Tasa hau aldizkakoa da, eta zergaldiak urte naturala hartzen du.
6.-Hilerriak kontserbatu, zaindu eta garbitzeko zerbitzua, errolda baten bide kudeatzen den aldizkako zerbitzua izanik, urtean behin ordainduko da banku-helbideratzearen bidez, errolda jendaurrean erakustean adieraziko den modu eta lehenengo hiruhilabeteko epean.

06. UDAL HILERRIAN ZERBITZUAK ETA EMAKIDAK GAUZATZEA. Salbuespenak

Ongintzako edo gizarte laguntzako erroldan jasotakoen gorpuak, behartsuenak eta ongintza etxeetan bizi zirenenak lurperatu eta lurpetik ateratzeko zerbitzuak	
Epaileek agindutako zerbitzuak	
Udalak salbuespen gisa ordaindu behar dituenak. Hauek dira salbuespenak: hildako pertsonak hurbileko senide ezagunik ez izatea. Kasu horietan udalak ordainduko ditu udal hilerriko zerbitzuak, indarrean dagoen legeriak gorpuzkinak hezurtegi komunera eramateko	

ezarritako epea bukatzen den arte, hala badagokio	

006.07.-ERANSKINA VII

01. SANEAMENDUKO ZERBITZUA

	%
Ur kontsumoagatik ordaindu beharreko zenbatekoaren % 84,10ekoa izango da (zergak sartu gabe).	84,10

006.08.-ERANSKINA VIII

01. HONDAKINEN BILKETA. EREMU ERRESIDENTZIALA eta LANDALURRA

ETXEBIZITZAK	
	72,80 € seihileko
Hiriguneko etxebizitzetan atez ateko bilketa	Koefi: 1,00
	54,60 € seihileko
Hiriguneko etxebizitzetan atez ateko bilketa, Auzoko konposketa eginez	Koefi: 0,75
Hiriguneko etxebizitzetan atez ateko bilketa, AUTO konposta eginez.	Koefi: 0,75
	72,80 € seihileko
Landa eremuko etxebizitzetan atez ateko bilketa.	Koefi: 1,00
	54,60 € seihileko
Landa eremuko etxebizitzetan atez ateko bilketa eta AUTO konposta egiten dutenak.	Koefi: 0,75
	64,65 € seihileko
Landa eremua etxebizitzetan ekarpen gunera hondakinak eramaten dutenak.	Koefi: 0,85
	41,45 € Seihileko
Landa eremuko etxebizitzetan ekarpen gunera hondakinak eraman eta konposta egiten dutenak	Koefi: 0,57
MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK**	
	Seihileko/semestral
Jarduerarik gabeko lokala	54,60 €
Sortzaile txikiak: Hondakin-frakzioko 40l edo gutxiago sortzea	87,25 €
Sortzaile ertainak: Hondakinen-frakzioetako batean 80l edo gehiago sortzea	241,15 €
Sortzaile handiak: 2 hondakin frakzio edo gehiagotan 80l-tik gora sortzea	313,45 €
Sagardotegiak	315,50 €
** Landalur eremuan garatzen diren jarduerei aplikatuko diren koefiziente murriztaileak , bilketa motaren arabera	
	Koefizientea
Hondakinen bilketa zerbitzua jardueraren lokaleraino ailegatzen ez bada	0,85
Landa eremuko jardueretan, konposta eginez gero	0,57

JARDUERA IBILTARIENTZAT	
	€
Eguneko zerbitzua	18,45
	kuota aldagaia (€/eguneko)/Cuota variable (€/día)
Kontuan hartuko da zenbateko finko bat eta eguneko zenbatekoa	Kuota finkoa / Cuota fija
	1
Sortzaile txikia	32,35 €
	2
Sortzaile handia	64,80 €

TASA KUDEATZEKO ARAUAK

1.-Etxebizitza edo merkataritza nahiz industria arloko lokal bereizi bakoitza hartuko da salbuespen honetarako oinarri gisa, zerbitzua eskaintzen duen inguru edo kaleetan.

Etxebizitza berezitzat hartuko da, erregistro-finka bakar gisa ageri dena, edo erregistro-finka bat baino gehiago izanez gero, horiek jabe berarenak baldin badira eta Biztanleen Erroldan etxebizitza bakar gisa onarturik datorrena.

Merkataritza edo industria arloko lokal berezitzat hartuko da:

- Erregistro-finka bakar gisa eta fisikoki lokal bakar gisa ageri dena, betiere bertan ekonomia-jarduera bakarra garatzen denean, edo hala egokituz gero, irekiera-lizentzia beraren menpe eta titular beraren menpe dauden zenbait jarduera daudenean.
- Erregistro-finka bakar gisa ageri baina fisikoki zenbait lokaletan bereizia dagoena. Kasu honetan, dauden merkataritza-lokalak adina tarifei emango zaie alta, jabea bera den edo ez den kontuan izan gabe.
- Erregistro-finka bat baino gehiago bezala baina fisikoki lokal bakar gisa ageri dena, jabe bakarra eta jarduera bat edo gehiago dituena, guztiak ere irekiera-lizentzia beraren menpe eta titular bakarrarekin.

2.-Etxebizitza edo lokal horiek okupatu gabe badaude ere, tasa ordaindu egin beharko da. Lokal kasuetan ordaindu beharreko gutxieneko kuota hiriguneko etxebizitzen kuota izango da.

Gutxieneko kuota aplikatze aldera, interesatuak eskaera bat aurkeztu beharko du idatziz eta, horrekin batera, jarduera ekonomikoen gaineko zergan, dagokion jarduera ekonomikoaren epigrafean, baja emateari dagokion 840 zenbakiko inprimakiaren fotokopia.

Eskaerak aurkeztu eta hurrengo urtetik aurrera izango du ondorioa, salbu eta jarduera ekonomikoaren baja aurreko urteko abendukoa baldin bada. Ez du inola ere atzera eraginik izango.

3.-Arau horretatik salbuetsita daude eraikuntza berriko eraikinetako lokal zatitu gabeak eta lehen aldiz okupatu gabeak.

4.-Tasak seihilabetekoaren lehen egunetik aurrera izango du eragina eta kuota ezin da zatitu seihilabeteko epealdika. Dena den, tasa horren ondorioetarako alta diren eta ekonomi ekitaldiaren barruan eraikitako etxe eta lokal berrien kasuan, tasak eragina izango du udalak etxe eta lokal horiei lehen erabilerarako baimena ematen dien egunetik aurrera. Kasu horietan tasa zuzenean kitatuko da eta altaren berri jasoko da, hurrengo urteko erroldan sartzeko.

5.- Sagardotegiek ezarritako tarifa propioa ordainduko dute urteko “txotx” denboraldiari dagokion 1. seihilekoa.

6.- Autokonposta:Pertsona batek bere jabetasuneko etxebizitza batean auto-konposta tarifa alta emanda badauka, eta Hernanin bigarren etxebizitza badauka, auto-konpostaren tarifa ere aplikatuko da bigarren etxebizitza honetan. Betiere frogatzen badu (eta atez ateko zerbitzuak baieztatzen badu) hondakin organikoak ez direla biltzen pertsona horrek duen bigarren etxebizitzan.

7.- Sagardotegien inguruan sagardotegia kokatuta dagoen eraikinean etxebizitza ere badago, etxebizitzak bere tarifa propio izango du eta ez da sagardotegiaren tarifarekin konpentsatuko du. Bi zerbitzu desberdinak dira.

8.- Jarduera ibiltarientzat onartutako tarifak auto-likidazioen bidez ordainduko dira, bide publikoa okupatzeagatiko lizentzia emakidarekin batera. Horretarako, Ingurumen eta Errenta Zerbitzuak elkar lanak egingo dituzte tasa hau gehi bide okupazioaren tasa biak batera ordaintzeko.

02. HONDAKINEN BILKETA. EREMU INDUSTRIALA

HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUA INDUSTRIA, LANTEGI ETA ENPRESETAN.- TASA APLIKAGARRIA	
	Hiruhileko/trimestral
Lokalak edo establezimenduaren azalera m2 bakoitzeko	0,29 €
Por cada contenedor de hasta 1.000 litros de fracciones de materiales reciclables puestos a disposición de los usuarios, o por cada contenedor particular de hasta 1.000 litros, con derecho a las siguientes fracciones:	
	Hiruhileko/trimestral
Egurra frakzioa	59,60 €
Film plastikoko frakzioa	33,10 €
Porex frakzioa	33,10 €
Fleje frakzioa	33,10 €
Papera/kartoia eta ontzi arinak ez dira kobratuko betiere beste hondakin-frakzio batzuekin nahasirik ez badira ateratzen.	
Erabiltzaileen esku utzitako material birziklagarrietako frakzioen 360 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio hauek biltzeko eskubidearekin:	
	Hiruhileko/trimestral
Egurra frakzioa	39,80 €
Film plastikoko frakzioa	22,10 €
Porex frakzioa	22,10 €
Fleje frakzioa	22,10 €
Papera/kartoia eta ontzi arinak ez dira kobratuko betiere beste hondakin-frakzio batzuekin nahasirik ez badira ateratzen.	
	Hiruhileko/trimestral
Erabiltzaileen esku utzitako errefus frakzioen 1.000 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 1.000 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	60,00 €
Erabiltzaileen esku utzitako errefus frakzioen 360 litroko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litroko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	37,55 €
Erabiltzaileen esku utzitako errefus frakzioen 120 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 120 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	9,90 €
Erabiltzaileen esku utzitako inerte frakzioen 1.000 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 1.000 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	60,00 €
Erabiltzaileen esku utzitako inerte frakzioen 360 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko, edota 360 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko,	37,55 €

frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	
Erabiltzaileen esku utzi eta biohondakinerako den 1.000 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko edota 1.000 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	33,10 €
Erabiltzaileen esku utzi eta biohondakinerako den 360 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko edota 360 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	22,10 €
Erabiltzaileen esku utzi eta biohondakinerako den 120 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko edota 120 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	9,70 €
Erabiltzaileen esku utzi eta biohondakinerako den 40 litrora arteko edukiontzi bakoitzeko edota 40 litrora arteko edukiontzi partikular bakoitzeko, frakzio haiek biltzeko eskubidearekin.	4,15 €
Inerteak biltzeko 1.000 litroko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	36,15 €
Inerteak biltzeko 360 litroko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko	21,85 €
Errefusa biltzeko 1.000 litroko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko	47,70 €
Errefusa biltzeko 360 litroko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko	29,05 €
Errefusa biltzeko 120 litrora arteko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	10,80 €
Biohondakina biltzeko 1.000 litroko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko *	8,30 €
Biohondakina biltzeko 360 litrora arteko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	4,15 €
Biohondakina biltzeko 120 litrora arteko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko.	2,15 €
	€
Zerbitzu bereziak	388,70
7/2022 legearen 93.artikuluak diena aplikatzearen ondorioz inertea kudeatu eta Aizmendira eramateko 1.000 litrora arteko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko	1,30
7/2022 legearen 93.artikuluak dioena aplikatzearen ondorioz inertea kudeatu eta Aizmendira eramateko 1.000 litro baino gehiagoko edukiontziarekin prestatutako zerbitzu unitate bakoitzeko	3,25
* Biohondakin bilketa gutxienez astean behin egingo da.	
Hondakinak kargatzeko bitarteko laguntzaileak behar izanez gero, bitarteko horiek zerbitzuaren erabiltzaileak berak jarri beharko ditu	

ERAIKIN KOLEKTIBOETAN DAUDEN BULEGO ETA ENPRESA TXIKIAK	
	Hiruhileko/trimestral
Lokal edo establezimenduaren azalera =< 50m2	68,25 €
50m2 < Lokal edo establezimenduaren azalera =< 100 m2	81,75 €
100 m2 < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 150 m2	98,10 €
150 m2 < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 200 m2	117,80 €
200 m2 < Lokal edo establezimenduaren azalera = < 250 m2	153,90 €
250 m2 > Lokal edo establezimenduaren azalera	169,65 €

(1) Paper-kartoi eta ontzi arinak birziklatzeko edukiontziak izan ezik, betiere beste hondakin-frakzio batzuk nahasirik ez badaramatzate
* Biohondakin bilketa gutxienez astean behin egingo da.
Hondakinak kargatzeko bitarteko laguntzaileak behar izanez gero, **bitarteko horiek zerbitzuaren erabiltzaileak berak** jarri beharko ditu.

TASA KUDEATZEKO ARAUAK

1. **-Ordaintzera derrigortua**

1) Eremu industriala izeneko atal honetan dauden zergak ordaintzean lokalaren unitatearena da printzipio nagusia, horretan aipatzen diren aurreikuspen zehatzak izan ezik.
2) Eraikin berean banan-banako erabilera edota edozein modutan erabilera bereizita izan dezaketen lokalak baldin badaude eta horietan batera jarduera desberdinak gauzatzen badira, jarduera bakoitzari dagokion zerga ordainduko da.

3) Aurreko puntuan aurrez ikusitako hipotesi berean jarduera horietan titular desberdinak ari badira, bakoitzak dagokion zerga ordainduko du kasu bakoitzean aplikagarria den tarifaren bat.
4) Baldin eta eraikin batean erabilera komunitarioko edukiontziak badaude, zerbitzu horri dagozkion tasak eraikin horretako jabe-erkidegoari kobratuko zaizkio.

2.-Oinarria

Kuota kalkulatzeko lokalen azalerak, zerbitzua erabiltzen duen bakoitzari emandako edukiontzi-kopurua eta bakoitzak bilketa-zerbitzua erabiltzen dituen aldiak hartuko dira kontuan:

-

Azalera:

lokal edo establezimendu bakoitzak dituen metro karratuak. Gehienez 2.000 m2 hartuko zaizkie kontuan, azalera hori gainditzen duten enpresei.

-

Edukiontzi kopurua:

kontuan hartuta benetako beharren araberako hondakin-ekoizpena, zerbitzua erabiltzen duen bakoitzari, Udalak eskura jartzen dion edukiontzi kopurua edo erabiltzaileak zerbitzua jasotzeko eskubidea duen jarritako edukiontziak.

-

Zerbitzu-unitateak:

erabiltzaileak bilketa zerbitzuei, horiek husteko edukiontzia ematen dien bakoitzean.

3. Tarifak

Eremu industrialaren atalaren I eta II eranskinetan aplikatuko diren tarifak zehazten dira. Tarifa horiek aplikatzerakoan aurreko artikuluan zehaztutako irizpideei jarraituko diete. Hauek dira irizpideak.
1.- Lokal edo establezimendu bakoitzak duen azaleraren metro karratu bakoitza
2.- Hondakinak isurtzeko erabiltzailearen eskura jarri den edukiontzi bakoitza edo erabiltzaileak, zerbitzua jasotzeko eskubidea duen jarritako edukiontziak.
3.-Emandako zerbitzu-unitate bakoitza. Zerbitzu-unitatetzat jotzen da edukiontzi bakoitza kentzen den bakoitzean.

4. Tasaren kuota

Ordaindu behar den behar den tasaren kuota izango da osagai hauek betetzearen ondorioz ateratako emaitza:
1.- Metro karratu bakoitzeko atal honen eranskinean ezarri den tarifa bider lokal edo establezimendu

bakoitzak duen azalera guztizko metro karratuak.
2.- Erabiltzaileari emandako edukiontzi edo zerbitzu-eskubide bakoitzeko atal honen eranskinean ezarri den tarifa bider erabiltzaileak dituen edukiontziak.
3.- Zerbitzu-unitate bakoitzeko atal honen eranskinean ezarri den tarifa bider benetan dituen edukiontzi guztiak
006.09.-ERANSKINA IX

01. UR HORNIDURA

Kuota hau ur hornidura emateagatiko zerbitzua abonatuaren eskura jartzeari dagokio, eta kontagailuaren kalibrearen arabera ezartzen da. Kuota uraren pasabide sekzioarekiko proportzionala da eta, horrenbestez, erabiltzaileak erabilgarri duen ur emariarekiko.

ZERBITZU-KUOTA FINKOA	
	Lauhileko/Cuatrimestral
Banakako kontagailua duten etxebizitzen etxeko erabilera arrunterako hornidura. SALBUESPENA: ez zaie tarifa hau aplikatuko familia bakarreko etxebizitzei (etxebizitza isolatuak, pareatuak eta atxikitakoak). Etxebizitza horiei kalibrearen araberako tarifa aplikatuko zaie, hots, gainerako horniduren atalean ezarritako kalibrearen araberakoa.	14,00 €
Kontagailu orokorra duten etxebizitzen etxeko erabilera arrunterako hornidura. Ordaindu beharreko kuota honela kalkulatuko da: banako kontagailuaren tarifa bider finkan dauden abonatuen kopurua. SALBUESPENA: ez zaie tarifa hau aplikatuko bizilagunen komunitateetako instalazio edota zerbitzu komunetarako kontagailu orokorrei (berogailuak, atarien garbiketa…). Horiei kalibrearen araberako tarifa aplikatuko zaie, hots, gainerako horniduren atalean ezarritako kalibrearen araberakoa.	14,00 €
Gainerako hornidurak: 13 mm-ko edota 15 mm-ko kalibrea	23,85 €
Gainerako hornidurak 20 mm	24,55 €
Gainerako hornidurak 25 mm	33,60 €
Gainerako hornidurak 30 mm	45,25 €
Gainerako hornidurak 40 mm	58,50 €
Gainerako hornidurak 50 mm	68,70 €
Gainerako hornidurak 65 mm	120,50 €
Gainerako hornidurak 80 mm	156,95 €
